

GOI-MAILAKO HEZKUNTZAREN EUROPAKO ESPARRUA

Goi-mailako hezkuntzaren eremua, oro har, eta, bereziki, unibertsitateak asko aldatu dira azken urteotan. Horretan, zeri-kusi handia izan du ezagutzaren gizartean izan diren aldaketek. Egia esan, unibertsitateek aspaldi utzi zioten klaseak emateko eta hartzeko erakunde soil izateari, eta, gaur egun, ikerketarako eremu garrantzitsu ere bihurtu dira. Eragile ekonomiko, sozial eta politikoak aspaldi hasi ziren esaten unibertsitateek ikerketa gehiago egin behar zutela, eta, horrek, aldatuta sakonak ekarri ditu unibertsitateetara. Gehiago esango dut, ezagutzaren gizartean lehentasunezko posizioak nahi dituzten gizarteek unibertsitateen lan egiteko moduak gehiago aldatu beharko dituzte, unibertsitateetan ideia berriak adierazteko bideak zabaldu beharko dituzte, burokratizazioa desagerarazteko bideak pentsatu beharko dituzte eta berrikuntza sustatu beharko dute. Ezagutzaren gizartea gauzatzeak eskatzen du unibertsitatea ulertzeko, irakasteko, ikertzeko eta unibertsitatea kudeatzeko beste modu bat sortzea. Eta hori guztia posible izateko, ezinbestekoa da Goi-Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan behar bezala kokatzea.

1. ZER DA GOI-MAILAKO HEZKUNTZAREN EUROPAKO ESPARRUA?

1998ko maiatzean, Frantzia, Erresuma Batua, Italia eta Alemaniako unibertsitateen ardura zuten ministroek aitortpen ba-

teratu bat egin zuten La Sorbonan (La Sorbonako aitortpena bezala ezagutua). Aitortpen horretan, ezagutzaren Europa indartu behar zela adierazi zuten, eta Europako unibertsitate sistemak bateratzeko beharra proposatu. Hobeto esanda, Europako Unibertsitate Eremua sortzeko erantzukizuna hartu zuten, eta, horrekin batera, Europako Unibertsitate Eremuak mugikortasuna eta lanerako aukerak erraztu behar zituela erabaki.

1999ko ekainean, Europako hogeita bederatzi herrialdetako hezkuntza ministroak bildu ziren Bolonian. Ministro horiek Sorbonako Aitortpenean ezarritako oinarriari atxikitu zitzaizkien, eta Goi-Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua sustatzeko helburuak jarri zituzten. Boloniako Aitortpena bezala ezagutzen da bilera horren emaitza.

Bolognako aitortpena sinatu zuten ministroak bi urtez behin biltzen joan dira, ematen dituzten aurrerapausoak ebaluatzeko eta hartu beharreko neurri berriak ezartzeko. Horrela, ondorengo bilerak Pragan (2001), Berlinen (2003), Bergenen (2005) eta Londresen (2007) izan dira.

Gaur egun, bateratze prozesu honetan Europako 46 estatuk parte hartzen dute, eta parte hartzen duten ministroen azken helburua da titulazio-sistema malgua, ulerterraza eta konparagarria ezartzea, ikasleen lan-aukerak handitzeko, beren mugikortasuna errazteko eta goi-mailako hezkuntzaren Europako sistemaren nazioarteko lehiakortasuna indartzeko.

Estatuek 2010. urtera arteko epea dute egin behar dituzten aldaketa guztiak egin eta Goi-Mailako Hezkuntzaren Europako Esparru honetan behar bezala integratzeko.

2. ZEINTZUK DIRA GOI-MAILAKO HEZKUNTZAREN EUROPAKO ESPARRUAREN HELBURUAK?

Oro har, Goi-Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak sei helburu ditu:

1. Erraz ulertu eta konparatu daitekeen titulazio-sistemara eta kalifikazio-sistemara egokitzea. Horretarako, tituluaren gehigarri europarra sortu da.
2. Herrialde guztietarako baliozkoa izango den kreditu-sistema sortzea. Horretarako, ECTS kredituak sortu dira.
3. Hiru ziklotan antolatutako unibertsitate ikasketak bultzatzea.
4. Goi-mailako hezkuntzaren arloan Europar mailako lankidetzatza sustatzea.
5. Esparru komun horren barruan ikasleen eta irakasleen mugikortasuna bultzatzea.
6. Garapen kurrikularrari garrantzia ematea, ikaslearen prestakuntza osatzeko.

3. ZER DA TITULUAREN GEHIGARRI EUROPARRA?

Unibertsitateko titulu ofizial bakoitzari laguntzen dion dokumentu bat da. Dokumentu horrek Goi-Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan normaldutako formatua du. Tituludun bakoitzarentzako, modu pertsonalizatuan, honako informazioa emango du:

- egindako ikasketak
- lortutako emaitzak
- eskuratutako gaitasun profesionalak

Etorkizunean, bizi osoko ikasketen emaitzak isladatuko dituen dokumentu bat izatea nahi da.

Tituluaren Gehigarri Europarraren bidez errazagoa izango da egindako ikasketak Europako beste estatu batzuetan onartzea eta langileei Europar Batasunean joan-etorri askean ibiltzeko aukera ematea. Alegia, tituluaren gehigarri europarrak titulazioen aitopren errazago bat ahalbideratzen du, baita ikasleak Europako lan merkatuan sartzea eta mugitzea erraztu ere.

Tituluaren Gehigarri Europarra behar duen pertsonak eskatu dezake, eta dagokion unibertsitateak igortzen du. Tituluaren Gehigarri Europarra gazteleraz eta unibertsitateak zehazten

duen Europar Batasuneko beste hizkuntza ofizial batean bidali behar da. Gure kasuan euskaraz ere emango da.

4. ZER DA ECTS SISTEMA (KREDITUEN TRANSFERENTZIARAKO EUROPAR SISTEMA EDO EUROPAKO KREDITU SISTEMA)?

Kredituen Transferentziarako Europar Sistema (ECTS) Europako beste unibertsitateetan ikasitako ikasketen onarpena errazteko sistema bat da, Erasmus programak sortu zuena.

ECTS delakoa Europako herrialde gehienetan dago ezarria, eta unibertsitateko ikasketa planetan zehazten diren helburuak lortzeko ikasleek egiten dituzten lanen neurri bateratu bat da. Lehen esan bezala, bizi osoko ikasketen emaitzak isladatuko dituen dokumentu bat izatea nahi da, hau da, bizitza guztian zehar egingo diren ikasketei lotuta.

4.1. Zein da gaur egun erabiltzen den kreditu sistema erabiltzearen eta ECTS erabiltzearen arteko desberdintasuna?

Gaur egungo sisteman kredituak irakasleak ematen dituen ikastorduak islatzen ditu. Zehazki esanda, gaur egungo kreditu bat 10 irakas-orduri dagokio.

Europako kreditua desberdina da. Izan ere, ikasketa plan batean programatutako helburuak gainditzeko ikasleek egin behar duten lan karga neurtzen du. Erreferentzi modura, ECTS kreditu bakoitzak laneko 25 eta 30 orduen artean islatzen ditu.

ECTS kreditu bat laneko 25 eta 30 ordu ingururi dagokiola kontuan hartzen badugu, ikasturte bakoitzean ikasleak ikasten egingo duen kopurua 1500 eta 1800 artekoa izango da.

4.2. Zer ulertzen da ikasleen lan karga esaten denean?

Ikasleen lan karga da programa baten helburuak betetzeko agintzen diren lan guztiak egiteko behar den ordu kopurua. ECTS

kreditu batek neurtzen dituen lan ordu guztietan ez dira eskola orduak bakarrik sartzen, baita ikasketa orduak ere; hau da, ebaluazio probak eta azterketak egin eta prestatzeko eskatutakoak eta mintegi, lan, praktika edo proiektuei eskainitako orduak.

4.3. Zenbat klase magistral edo teoriko egongo dira?

Irakasgai bakoitzak duen ECTS kreditu bakoitzeko 7,5 eta 10 ordu bitartean eskola orduak izango dira. Klase magistral edo teorikoak, gehienez ere, ikastordu kopuruaren %60 izango dira. Gainontzekoa, beraz, lantzen den irakasgaiaren ezaugarrietara hobekien egokitzen diren praktika, tailer edota mintegiei dagokie.

4.4. Zein izango da irakasleen lana hezkuntza sistema berri honetan?

Irakasleen egiteko nagusia ikasten irakastea da. Hezkuntza sistema berrian irakaslea ez da bakarrik ezagutza hori ematera mugatuko, baizik eta lan, mintegi, ebaluaketa eta azterketak antolatu behar ditu. Hain zuzen ere, helburua da ikasleek lanerako eskaerei behar den bezala erantzutea baimentzen duten gaitasun eta ezagutzak eskura ditzatela.

Sistema berriak dakarrena ikasleen jarrera aldaketa da. Hau da, ikasleak ezagutzaren hartzaile soil bat izateari uzten dio eta ikasketa prozesuan jarrera aktibo eta autonomo bat hartzen du.

5.- ZENBAT ZIKLO IZANGO DIRA UNIBERTSITATEAN?

Hiru ziklo nagusi izango dira unibertsitatean. Gradua (240 kreditu), masterra (60 eta 120 kreditu artean) eta doktoregoa (120 kreditu eta doktoregoko ikerketa). Ikasturte bakoitzak, gehienez, 60 ECTS izango ditu eta, hortaz, graduak 4 urteko iraupena izango du, masterrak 1 edo 2 urtekoa eta doktorego-kurtsoek 2 urtekoa, doktorego-tesia aurkezteko behar den denbora gehituta.

5.1. Nola antolatuko da gradua?

Graduko ikasketen helburua da ikasleei kualifikazio profesional egoki bat ematea, Europako lan esparruan zuzenean sartzeko edo graduondoko prestakuntzarekin jarraitzea ahalbidetuko dien prestakuntza unibertsitariora lortzeko.

Graduko ikasketak ezartzearekin egungo diplomatura eta ikasketa teknikoak eta gaurko ingeniaritza eta lizentziaturak desagertu egingo dira. Hauek guztiak graduko ikasketa bihurtuko dira.

Oraingo ikasketa planak ikasturtez ikasturte desagertuko dira eta ikasleek ikasketa plan berdinarekin jarraitu ahaliko dute. Behin ikasturte bakoitza desagertuta, ikasleek ikasturte hori hurrengo bi ikasturte akademikotan gaingitzea ahalbidetuko duten prozedurak bermatuko ditu unibertsitateak.

5.2. Nola antolatuko dira master ikasketak eta doktorego ikasketak?

Masterrak ikasleak prestakuntza aurreratuago bat eskuratzera bideratuta daude. Prestakuntza aurreratu espezializazio akademiko edo profesionala hastera bultzatzera bideratuta dago.

Doktorego ikasketen helburua da ikerketa tekniketan ikasleak prestatzea. Doktoregoa ikastaro, mintegi eta beste jarduerak batzuen bidez egin ahal izango da eta doktorego tesi bat egin eta aurkeztu beharko da.

6. ZEINTZUK DIRA GOI-MAILAKO HEZKUNTZAREN EUROPAKO ESPARRUAREN ERRONKAK EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEENTZAT?

Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua ezartzeak zenbait erronka dakartza Euskal Herriko Unibertsitateentzat:

- a. Bolognako prozesua errealitate bihur dadin, beharrezkoa da kontu handiz ibiltzea Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua Europar Batasuna osatzen duten errealitate sozial,

kultural eta ekonomiko desberdinetara egokitzerakoan; hau da, herrialde bakoitzeko berezitasunak (hizkuntza, produkzio-sistema, ekonomia...) hartu behar dira aintzat. Esku artean dugun kasuan, Bolognako prozesua Euskal Herriko berezitasun linguistiko, kultural eta sozioekonomikoak kontuan izanda bultzatu behar da.

- b. Bestalde, argi adierazi behar da Bolognako prozesuan ez dela bilatzen hezkuntzaren homogeneousutasuna, baizik eta, egindako ikasketen onarpena errazteko alderagarriak diren prestakuntza programak bilatzen dira. Unibertsitateen lana da homogeneousutasuna ekidin eta titulazio-sistema malgua, ulerterraza eta konparagarria ezartzea.
- c. Beste erronka garrantzitsu bat da ikasteko sistema aldatzea-rena. Apunteak besterik gabe buruz ikasi ordez, hezkuntza praktikoagoa izatea lortu behar litzateke. Horretarako, beharrezkoa da ikasle gutxiagoko taldeak sortzea. Gaiak eztabaidatzea, jarduera praktikoak egitea eta elkarrizketa ikasteko modu gisa hartzea, funtsezko alderdiak buruz ikastearekin batera, etorkizuneko profesionalak prestatzen lagunduko duten jarduerak dira. Alegia, ezinbestekoa da ikasketak unibertsitarioekiko jarrera aldatzea.
- d. Unibertsitate-sistemak berriro orientatu behar dira, ikasleak irakaskuntza-sistemaren ardatz nagusia izan daitezten. Ildo horretatik, beharrezkoa da unibertsitate-ikasketak bertan behera uztearen inguruan hausnarketa egitea, horren inguruan neurri egokiak hartzeko, baita ikasle berriak hobeto moldatzeko bideak bilatzeko edo eskola-uztean eragiten duten elementuak murrizteko. Ezin da ahanzi Estatuko unibertsitate-sisteman eskola-uztearen batez besteko tasa % 28koa dela eta UPV/EHU ikasketak bertan behera utzi zitezutenen tasa % 26koa izan zela 2004-2005 ikasturtean¹.

¹ C.R.U.E: *La universidad en cifras, 2006. Información académica, productiva y financiera de las universidades españolas. 2004. Indicadores universitarios. Curso académico 2004-05.*

2003ko eta 2006ko PISA azterlanean emaitzarik onenak lortu zituen Finlandian, aldiz, graduako eta masterreko ikasleetatik % 5,4k utzi zituzten beren ikasketak eta unibertsitateko ikasleetatik % 4,7k (2005eko datuak)².

- e. Mugikortasuna Europako esparru komun horren funtsezko beste puntu bat da. Horrela, beharrezkoa da unibertsitateak internazionalizatzearen aldeko apustua egitea, unibertsitateen arteko lankidetzaz hitzarmenak eginda eta atzerrian egoten diren denboraldian ikasleei laguntzeko bekak eskainita. Era berean, beharrezkoa da bai irakasleen bai administrazio eta zerbitzuetaiko langileen mugikortasuna sustatzea.
- f. Ezinbestekoa da kalitatezko euskal unibertsitate-sistema sortzea, bai ikasleak bai irakasleak gure unibertsitateetara erakartzeko. Kontuan izanik azken urteotan behera egin duela nabarmen ikasleen matrikulazioak (2001-2002 ikasturtetik 2006-2007 ikasturtera, ikasle-kopurua % 13,7 murriztu da Euskal Herriko Unibertsitatean, % 37,8 Deustuko Unibertsitatean eta % 2,8 Mondragon Unibertsitatean³ ikasleak eta irakasleak erakartzeko politikak bultzatu behar dira nahitaez.
- g. Azkenik, erreforma gauzatzeko berariazko baliabideak behar dira. Beharrezkoa da plan egituratua prestatzea, orain daukagun sistema europar sistemara moldatzeko prozesuan sortzen diren gastuei aurre egin ahal izateko. Aurrekontu garbirik izan ezean, birmoldaketa honek porrot egin lezake.

7. BIBLIOGRAFIA

- C.R.U.E: *La universidad en cifras, 2006. Información académica, productiva y financiera de las universidades españolas. 2004. Indicadores universitarios. Curso académico 2004-05*. Madril. 2006

² Finish Ministry of Education: Universities. Annual Report. Finland, 2007.

- Finish Ministry of Education: Universities 2006. Annual Report, Finland, 2007.
- UPV/EHU: Eremu berria, aukera berriak, 2010. UPV/EHU.

Patxi Juaristi